

BEASAINGO UDALA



Beasaingo Udala



Euskararen Plan Estrategikoa

Plan Estratégico del Euskera

2024 - 2027

aurkibidea

índice

1. Sarrera	
<i>Introducción</i>	4
1.1. Marko juridikoa	
<i>Marco jurídico</i>	5
2. Planaren oinarriak eta baliabideak	
<i>Bases y recursos del Plan</i>	8
2.1. Plangintzaldi berriaren gidalerroak	
<i>Directrices del nuevo periodo de planificación</i>	8
2.2. Planaren metodologia, egiturak eta urratsak	
<i>Metodología, estructuras y pasos del Plan.</i>	9
3. Diagnostikoa	
<i>Diagnóstico</i>	12
4. Euskararen plan estrategikoa	
<i>Plan estratégico del euskera</i>	15
4.1. Eragin-eremua	
<i>Área de influencia</i>	15
4.2. Eragin-epea	
<i>Plazo de efectos</i>	15
4.3. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak	
<i>Retos y objetivos estratégicos del Plan.</i>	15
4.4. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta derrigortasun-indizea	
<i>Perfiles lingüísticos, fechas de preceptividad e índice de preceptividad</i>	17
5. Hizkuntza-irizpideak	
<i>Criterios lingüísticos</i>	19
6. 2024-2027 Plan estrategikoa	
<i>Plan estratégico 2024-2027</i>	19
7. Kudeaketa plana	
<i>Plan de gestión</i>	24
8. Plana garatzeko egitura	
<i>Estructura de desarrollo del plan</i>	27
9. Jarraipen eta ebaluazio-sistema	
<i>Sistema de seguimiento y evaluación</i>	28
10. Planaren komunikazioa	
<i>Comunicación del plan</i>	30

1. SARRERA

19/2024 Dekretuaren bidez euskararen erabilaren normalizazioa arautu da euskal sektore publiko osorako (2. art). Aurrez, halaber, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztiei 86/1997 Dekretuan, baita hori gauzatzeko jarraibideak zehaztu ere (19/2024 Dekretuan ere jaso da, 17. eta 20. artikuluetan: "Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa landu eta onartuko du plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, bere barne-antolamenduko arauak jarraituz" eta "Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak plan estrategikoa garatzeko kudeaketa-plan bat edo batzuk egin eta onartuko ditu bi aldiz, gutxienez, plangintzaldi bakoitzean"). Baina aurreragotik hasitako ibilbideari jarraiki, EAEko Administrazio Orokorraren I. Plangintzaldia ezarri zen 1990. urtean, eta 2024an VII. Plangintzaldiaren hastapenetara iritsi gara.

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu batera ekarri gaituzte. Ardatz nagusietako bat da legeak erakundeei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Lehen Plana onartu zenetik 33 urte pasatu dira eta hamaika aurrerapen egin dira, baina euskararen kanpo- zein barne-erabilera badago oraindik zer hobetua hizkuntza ofizialen kudeaketa bikainaren bidean.

Beasaingo Udalak 1995eko maiatzaren 17an onartu zuen lehen plangintzaldian langileen hizkuntza prestakuntza izan zen erronka nagusia, eta lehentasunez herritarrekin harreman zuzena zuten sailtako langileena. Izan ere, hasierako plangintzaldi haiek zerbitzu hizkuntzari zuzendutakoak ziren betez ere, hau da, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira egindakoak.

Handik hona, eta udalerriko egoera soziolinguistikora egokিতuta, euskara zerbitzu hizkuntza izatetik lan hizkuntza izatera bideratutako urratsak eman dira. Lan dokumentuetako eta bileretako hizkuntza euskara izatera bideratu dira indarrak.

Horrekin batera, udalak egiten dituen zerbitzu kontratazioetan eta dirulaguntza deialdietan hizkuntza klausulak txertatu dira.

Gainera, herri administrazioetan azken urteetan tramitazio elektronikokoak eta baliabide informatikokoak hartu duten garrantzia kontuan hartuta, horietara egokitzeko saiakerak egin dira.

Testuinguru horretan Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak euskararen erabilera normalizatzeko planen egitura berria zehaztu du VII. Plangintzaldirako: Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (aurrerantz,

1. INTRODUCCIÓN

El Decreto 19/2024 regula la normalización del uso del euskera para todo el sector público vasco (art. 2). Asimismo, en el Decreto 86/1997 se estableció la necesidad de que todas las administraciones de la Comunidad Autónoma de Euzkadi aprobaran un plan de normalización del uso del euskera, así como las directrices para su ejecución (también se recoge en el Decreto 19/2024, en sus artículos 17 y 20: «Cada entidad del sector público vasco elaborará y aprobará su plan estratégico en el primer año de cada período de planificación de acuerdo con sus propias normas de organización interna» y «En cada período de planificación cada entidad del sector público vasco elaborará y aprobará, al menos en dos ocasiones, un plan o planes de gestión para el desarrollo del plan estratégico»). Pero siguiendo la trayectoria iniciada, en 1990 se estableció el I Período de Planificación de la Administración General de la CAPV y en 2024 se ha llegado a los inicios del VII Período de Planificación.

Los periodos de planificación de los últimos años nos han conducido hasta un modelo de gestión para orientar de manera más eficaz el uso del euskera. Uno de los ejes principales es el ejercicio de las funciones que la ley impone a las instituciones para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Han pasado 33 años desde la aprobación del primer Plan y se han hecho grandes avances, pero el uso interno y externo del euskera sigue siendo una mejora en la gestión excelente de las lenguas oficiales.

En el primer periodo de planificación aprobado por el Ayuntamiento de Beasain el 17 de mayo de 1995, el principal reto fue la formación lingüística de los trabajadores y trabajadoras, y de los departamentos que se relacionaban de forma preferente con la ciudadanía. De hecho, aquellos primeros periodos de planificación estaban dirigidos sobre todo a la lengua de servicio, es decir, a garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Desde entonces, y adaptándose a la situación sociolingüística del municipio, se han dado pasos para que el euskera pase de ser una lengua de servicio a ser una lengua de trabajo. Se han centrado los esfuerzos para que el idioma de los documentos de trabajo y de las reuniones sea el euskera.

Junto a ello, se han incluido cláusulas lingüísticas en las contrataciones de servicios y en las convocatorias de subvenciones que lleva a cabo el ayuntamiento.

Además, dada la importancia que la tramitación electrónica y los medios informáticos han adquirido en los últimos años en las Administraciones Públicas, se han intentado adaptar a dichos medios.

KEMEN). Eredu berria da, eta metodologia ezberdin bati erantzuten dio, bai planteamenduan, baita aplikazioan ere.

Orain arteko plangintzaldi guztiek udaleko langileak izan dituzte oinarrian eta herritarrak jomuga, orain eskuartean dugun plangintzaldiak hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeetako kudeaketa orokorrean txertatzeko beharrezana du oinarrian.

Txosten honetan 2024-2027 bitartean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa jaso dugu. Plan honen helburua da Beasaingo Udalean euskararen egoera zehaztea eta berau hobetzeko egin beharrekoak ezartzea.

Plana diseinatzerakoan, goian aipatutako KEMEN metodologia kontuan hartu da: metodologia hori aplikatzeko kudeaketa-egitura berriak sortu dira eta agintari politikoek, agintari teknikoek eta langileek osatutako batzorde bat eratu da plangintzaldi hau osatzeko eta batzorde horren ardura izango da, besteak beste, kudeaketa orokorraren barruan txertatzea euskararen kudeaketa.

1.1. Marko juridikoa

2022an berrogei urte bete ziren euskararen normalizazio-legea onartu zenetik. Hura izan zen administrazioa euskalduntzeko EAE mailako lehenengo lege-oinarria eta haren haritik beste hainbat lege, dekretu eta plan etorri ziren. Hemen horietako nagusiak jaso ditugu:

1982. 10/1982 Euskararen Normalizazio Legea. Bertan arautu ziren herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Horretarako, herri-aginteen betebeharra xedatu zuen, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatzeko. Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, administrazio-ko langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, administrazio-ko lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza araubidea. Ondorioz, legearen hastapen edo oinarriarik funtsezkoena honako hau da: hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea.

1989. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia administrazio-ko langileak euskaraz jarduteko gaitzea izan zen, eta euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria izan zen, besteak beste, lanpostuen zerrendetan jaso beharreko hizkuntza-baldintzak eta betebeharrak zehaztu baitzituen. Diziiplina araubidearen atalean ere, hizkuntzagatiko diskriminazioa dakarren edozein jarduketa hutsegite larritzat tipifikatu zen.

1992. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zuen Europako Kontseiluak, eta, ordutik, hizkuntza-eskubideekiko errespetua jasota eta aitortuta dago. Espainiako Erreinuak 2001ean berretsi zuen administrazio guztiei dago-

En este contexto, la Viceconsejería de Política Lingüística ha definido la nueva estructura de los planes de normalización del uso del euskera para el VII Periodo de Planificación: Marco de Gestión y Uso para la Normalización del Euskera (en adelante, KEMEN). Se trata de un nuevo modelo que responde a una metodología diferente tanto en su planteamiento como en su aplicación.

Todos los periodos de planificación hasta ahora han tenido como base al personal municipal y a la ciudadanía en general; el periodo de planificación que ahora nos ocupa, en cambio, se basa en la necesidad de integrar la gestión de las lenguas oficiales en la gestión general de las instituciones.

Este informe recoge el Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera 2024-2027. El objetivo de este plan es definir la situación del euskera en el Ayuntamiento de Beasain y establecer las actuaciones necesarias para su mejora.

En el diseño del Plan se ha tenido en cuenta la metodología KEMEN mencionada anteriormente, para cuya aplicación se han creado nuevas estructuras de gestión; asimismo, se ha constituido una comisión formada por autoridades políticas, autoridades técnicas y personal para elaborar este periodo de planificación, que será la encargada, entre otras cosas, de integrar la gestión del euskera dentro de la gestión general.

1.1. Marco jurídico

En 2022 se cumplieron cuarenta años de la aprobación de la ley de normalización del euskera. Esta fue la primera base legal para la euskaldunización de la Administración en el ámbito de la CAPV, a la que siguieron otras leyes, decretos y planes. Aquí se recogen los principales:

1982. Ley 10/1982, básica de normalización del uso del euskera. En ella se regularon los derechos de la ciudadanía y las obligaciones de las administraciones para con las personas. A tal efecto, dispuso la obligación de los poderes públicos de asegurar el ejercicio ilimitado de este derecho. En el artículo 14 de dicha Ley se establecen, por un lado, las medidas para la euskaldunización del personal al servicio de la Administración y, por otro, el régimen lingüístico para tener en cuenta en la provisión de puestos de trabajo en la Administración. En consecuencia, el principio o fundamento básico de la ley es que los derechos lingüísticos son de la ciudadanía, y corresponde a la Administración cumplir ese derecho y garantizar que se cumpla.

1989. Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca. En el primer periodo de planificación al respecto (1990-1995) el objetivo principal fue capacitar al personal de la Administración para poder ejercer en euskera, lo cual constituyó la base del proceso de normalización del uso del euskera, y determinó, entre otras cuestiones, las condiciones lingüísticas y los requisitos a incluir en las relaciones de puestos de trabajo. En

kiela eremu urriko hizkuntzetan mintzatzen diren herritarrei haien hizkuntzan harrera egitea eta zerbitzua eskaintzea, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hitzunen eta gainerako biztanleen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak ez direla diskriminaziotzat hartuko.

1997. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkartearen herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. Dekretu honek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien EAEko herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxiengo osagaiak ezarri zituen, hau da, normalizaziorako helburuak betetzeko hizkuntza-politika eta horren jarraibide nagusiak ezarri zituen.

2005. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe biziitzeko 4/2005 Legea. Printzipio orokorretan ere honakoa adierazten da (3. art.):

«Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea. Honela definitzen duena: Euskal botere publikoek bermatu behar dute hizkuntza-eskubideak baliatzen direla eta euskararen erabilera sustatzen dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Horretarako, berdintasun-politikak garatzeko orduan, ziurtatuko dute, beste neurri batzuen artean, interesdunak aukeratutako hizkuntza koofizialean ematen direla zerbitzuak, herritarrentzako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla, eta langile eta profesionalentzako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela.»

Lege berak genero-ikuspegiaren integrazioaren gainean zera adierazten du:

«Euskal herri-aginteei genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburuak eta jarduketak zehatzak txertatzea.»

Printzipio horrek euskal herri-aginteen politika eta ekintzei erreferentzia egiten dienean, euskararen eremuan egiten diren politika eta ekintzak ere aintzat hartzen ditu. Beharrezkoa ikusten dugu, beraz, hizkuntza-politikaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen ote dugun gogoeta egitea, baita (ahal dela) lanerako oinarri batzuk jartzea ere. Azkenik, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua pertsonen eskubideak administrazio publikoekiko

el apartado de régimen disciplinario también se tipificó como falta grave cualquier actuación que implique discriminación por razón de idioma.

1992. La Carta Europea de las Lenguas Minoritarias fue aprobada por el Consejo de Europa y desde entonces el respeto a los derechos lingüísticos está recogido y reconocido. El Reino de España reiteró en 2001 que corresponde a todas las administraciones atender y prestar servicio en su lengua a las personas ciudadanas que se expresan en lenguas minoritarias y que las actuaciones dirigidas a promover la igualdad entre las personas hablantes de lenguas regionales o minoritarias y el resto de la población no se considerarán discriminatorias.

1997. Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Este Decreto estableció la obligatoriedad de aprobar un plan de normalización del uso del euskera a todas las administraciones públicas vascas. Además, estableció los elementos mínimos a recoger en dichos planes, esto es, la política lingüística para el cumplimiento de los objetivos de normalización y sus principales directrices.

2005. Ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres y la no violencia machista contra las mujeres. En los principios generales también se señala lo siguiente (art. 3):

«Proteger los derechos lingüísticos y fomentar el uso del euskera. Lo define como: los poderes públicos vascos deben garantizar el ejercicio de los derechos lingüísticos y el fomento del uso del euskera en materia de igualdad de mujeres y hombres. A tal efecto, garantizarán, en el desarrollo de las políticas de igualdad, entre otras medidas, la prestación de servicios en la lengua cooficial elegida por la persona interesada, la garantía de los derechos lingüísticos en las actividades de formación, participación y sensibilización de la ciudadanía y el fomento del uso del euskera en las actividades dirigidas a las personas trabajadoras y profesionales».

La misma ley señala lo siguiente sobre la integración de la perspectiva de género:

«Los poderes públicos vascos deben incorporar la perspectiva de género en todas sus políticas y acciones, de forma que establezcan en todas ellas el objetivo general de eliminar las desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres. A los efectos de esta ley, se entiende por integración de la perspectiva de género la consideración sistemática de las diferentes situaciones, condiciones, aspiraciones y necesidades de mujeres y hombres, incorporando objetivos y actuaciones concretas dirigidas a eliminar las desigualdades y promover la igualdad en todas las políticas y acciones, a todos los niveles y en todas sus fases de planificación, ejecución y evaluación».

harremanak xedatzen ditu eta norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei.

2016. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udal lege berrian, 7. artikuluan lehenengo aldiz, “Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.”

2019. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretu horrek hainbat berrikuntza dakartza eta, zerbitzu hizkuntzan ez ezik, lan hizkuntzan ere urrats kualitatiboak emateko aukerak zabaltzen ditu.

2024. 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa. Bi xede nagusi ditu:

- Euskal Sektore Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatze prozesua arautzea.
- Euskal Sektore Publikoko erakundeen hizkuntza planifikazioa eta lanpostuetako hizkuntza- eskakizunen sistema arautzea.

Dekretu honek ekarri dituen beritasunak:

- Dekretu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie Euskal Sektore Publikoa osatzen duten zuzenbide publiko zein pribatuko erakunde guztiei (erakunde autonomoak, partzuergoak, fundazioak, enpresak, edota elkarteak barne)
- Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko sistema malguagoa, erabilera errealean oinarrituta: Maila asimetrikoak.
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze ohiko bideei bi aukera berri gehitzen zaizkie.
- Hautaketa-prozesuetan, DD duten lanpostuetan, deialdia egiten duen entitateak proba osoa edo probaren zati bat euskaraz egitea erabaki ahal izango du.
- Planen kudeaketari dagokionez, gutxienez, HPSk ezinbestekotzat jotzen dituen adierazleak (KEMEN: Aginte Panela) jaso behar ditu diagnosiak.

Cuando este principio hace referencia a las políticas y acciones de los poderes públicos vascos, también tiene en cuenta las políticas y acciones que se llevan a cabo en el ámbito del euskera. Se considera necesario, por tanto, reflexionar sobre la integración de la perspectiva de género en el ámbito de la política lingüística y, en la medida de lo posible, establecer unas bases de trabajo. Por último, el artículo 13 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común, establece los derechos de las personas en sus relaciones con las Administraciones Públicas y reconoce el derecho de toda la ciudadanía a utilizar las lenguas oficiales en el territorio de su Comunidad Autónoma.

2016. Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. En la nueva ley municipal, por primera vez en su artículo 7, «se atribuye a los municipios, como propia, la competencia para el fomento del uso del euskera y la planificación de su normalización en los servicios y actividades que correspondan a su esfera de atribuciones».

2019. Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi. Este decreto incorpora varias novedades y amplía las posibilidades de dar pasos cualitativos no solo en la lengua de servicio, sino también en la lengua de trabajo.

2024. Decreto 19/2024, de 22 de febrero, de normalización del uso del euskera en el Sector Público Vasco. Tiene dos objetivos principales:

- Regular el proceso de normalización del uso del euskera en las entidades del Sector Público Vasco.
- La planificación lingüística de las entidades del Sector Público Vasco y la regulación del sistema de perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo.

Novedades introducidas por este Decreto:

- Lo establecido en este Decreto se aplicará a todos los entes de derecho público o privado, incluidos los organismos autónomos, consorcios, fundaciones, empresas o asociaciones que integran el Sector Público Vasco.
- Un sistema de asignación de perfiles lingüísticos más flexible, basado en el uso real: Niveles asimétricos.
- A las vías habituales de acreditación de perfiles lingüísticos se añaden dos nuevas opciones.
- En los procesos selectivos, en los puestos con DD, la entidad convocante podrá decidir que la prueba sea íntegra o parcialmente en euskera.
- El diagnóstico deberá contener, al menos, los indicadores que la VPL considere imprescindibles en relación con la gestión de los Planes (Cuadro de Mando KEMEN).

2. PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK

2.1. Plangintzaldi berriaren gidalerroak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu dituen VII. Plangintzaldirako gidalerroen arabera, herri-erakundeok dagokigun autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

Beasaingo Udalean hizkuntza-ofizialen erabilera kudeatzeko beharizan hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen bitartez gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, Udalak sustapen-ekintzak abiatzen ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta gure erakundeko esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Helburu hori lortzeko, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Beasaingo Udalean hizkuntza-ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak. Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk eman dituen hainbat aholku kontuan izan ditugu hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egiteko.

Izan ere, VII. Plangintzaldiko hiru elementurik funtsezkoenak —egitura, sistematika eta adostasuna— kudeaketari dagozkio; eta era berean, kudeaketak erabateko eragina du erabileran.

Horrela, egiturari dagokionez, hizkuntza-kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko beharra kontuan hartuta, hori gauzatzeko sistematika bat ezarri da, agintaritzan dauden pertsonak eta tarteko arduradunak inplikatzu.

Bestetik, Beasaingo Udalak parte-hartzaile guztien adostasuna, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatu ditu. Hala, langileen partaidetza bultzatu da euskararen erabilera sustatzeko konpromiso indibidual eta kolektiboak hartzeko. Era berean, erakundeak langileekiko konpromisoak hartu ditu, normalizaziorako baliabideak jarri eta trebakuntzarako erraztasunak emanez, besteak beste.

Aurrekoez gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundeen esperientziari erreparatuta, hainbat ondorio azaleratu dira. Besteak beste, EAEko sektore publikoak eskaintza linguistiko aktiboa egin behar duela, hizkuntza-hautuaren zama eta estres linguistikoa herritarren bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek modu proaktiboan parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan eta Plan honek horretan ere jarri nahi du begirada.

2. BASES Y RECURSOS DEL PLAN

2.1. Directrices del nuevo periodo de planificación

De acuerdo con las Directrices para el VII Periodo de Planificación, publicadas por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, en el ejercicio de la autonomía que nos corresponde, las instituciones públicas debemos garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía, ya que la legislación establece el derecho de la ciudadanía para utilizar cualquiera de las dos lenguas oficiales y la obligación de la Administración de garantizar dicha competencia.

Esta necesidad de gestionar el uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Beasain la materializamos a través de los Planes de Normalización del Uso del Euskera, con los que el Ayuntamiento emprende acciones de promoción para garantizar los derechos lingüísticos de toda la ciudadanía e incrementar el uso del euskera en todos los ámbitos de nuestra institución.

Para lograr este objetivo, serán las autoridades políticas y técnicas las que, inevitablemente, guíen y lideren la gestión del uso de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Beasain. Para abordar esta tarea hemos tenido en cuenta una serie de recomendaciones de la VPL para una gestión lingüística eficaz.

De hecho, los tres elementos más fundamentales del VII Periodo de Planificación —estructura, sistemática y consenso— corresponden a la gestión, que a su vez tiene un impacto total en el uso.

Así, desde el punto de vista estructural, teniendo en cuenta la necesidad de integrar la gestión lingüística en la gestión general de la organización, se ha establecido una sistemática para llevarla a cabo, implicando a las personas presentes en la autoridad y a los responsables intermedios.

Por su parte, el Ayuntamiento de Beasain ha velado y buscado el consenso, la implicación y la colaboración de todos los participantes. Así, se ha impulsado la participación de los trabajadores en la adopción de compromisos individuales y colectivos para fomentar el uso del euskera. De igual forma, la organización ha adquirido compromisos con su plantilla, dotándoles de medios para la normalización y facilitándoles la formación, entre otros.

Además de las anteriores, la experiencia de entidades que han llevado a cabo procesos exitosos para la promoción del uso del euskera ha puesto de manifiesto una serie de conclusiones. Entre ellas, la necesidad de que el sector público de la CAPV consiga una oferta lingüística activa que elimine

2.2. Planaren metodologia, egiturak eta urratsak

Esan bezala, Hizkuntza Politika Sailak (hemendik aurrera HPS) euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko eta tresna berriak garatu ditu, eta VII. Plangintzaldirako metodologia eta markoa proposatu ditu: KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako.

KEMENek erakundeetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketa erdigunean jarri da, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeek jarraipenerako gutxienezko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle).

Hauxe da KEMEN marko osoa:

la carga de la elección y el estrés lingüísticos para la ciudadanía. Además, las instituciones deben participar de forma proactiva en las iniciativas a favor del uso del euskera y este Plan también quiere poner la mirada en ello.

2.2. Metodología, estructuras y pasos del plan

Como se ha señalado, el Departamento de Política Lingüística (en adelante DPL) ha desarrollado nuevos marcos e instrumentos para la gestión y seguimiento del uso del euskera por parte de las entidades del sector público vasco y ha propuesto la metodología y el marco para el VII Periodo de Planificación: KEMEN: Marco de Gestión y Uso para la Normalización del Euskera.

KEMEN agrupa los apartados necesarios para la gestión, uso y seguimiento del euskera en las organizaciones. En el nuevo marco se reconoce un lugar preferente en la gestión, es decir, en la estructura, sistemática y colaboración para el desarrollo de los planes. Pero la gestión no es el objetivo, es el recurso. Por tanto, KEMEN ha dado lugar a una actualización del sistema de indicadores de gestión y seguimiento, cuyas principales características son las siguientes:

- Es el marco que recoge los apartados necesarios para la gestión y seguimiento del uso del euskera en cualquier institución.
- Se ha puesto la gestión en el centro y se han incorporado indicadores de gestión que tienen un gran impacto en los indicadores relativos al uso del euskera: seguimiento, transversalidad, gestión sistemática, liderazgo, estrategia...
- Se han formulado los indicadores de manera positiva, con la intención de marcar la dirección del proceso de normalización.
- Cada organización puede adaptar su marco a sus realidades, características y necesidades.
- Se ha completado el cuadro de mando. El cuadro de mando recoge los indicadores mínimos de seguimiento de las entidades del Sector Público Vasco (14 indicadores).

Este es todo el marco KEMEN:

1. eremua: KUDEAKETA Área 1: GESTIÓN		2. eremua: ERABILERA Área 2: USO	
ARLOAK / ÁMBITOS	Euskararen Kudeaketa Orokorra <i>Gestión General Del Euskera</i>	ARDATZAK / EJES	ZERBITZU HIZKUNTZA LENGUA DE SERVICIO
	Lidergoa / Liderazgo		
	Langileak / Plantilla		
	Gaitasuna / Capacidad		
	Euskararen Erabilera Sustatzeko Estrategia <i>Estrategia Para Fomentar El Uso Del Euskera</i>		
	Hizkuntza-Klausulak / Cláusulas Lingüísticas		
ARLOAK / ÁMBITOS	LAN-HIZKUNTZA LENGUA DE TRABAJO	ARLOAK / ÁMBITOS	Irudia / Imagen
			Herritarrekiko Harremana <i>Relaciones Con La Ciudadanía</i>
			Barne-Harremanak <i>Relaciones Internas</i>
			Kanpo-Harremanak <i>Relaciones Externas</i>
			Prestakuntza / Formación
			Baliabide Informatikoak <i>Recursos Informáticos</i>
ARLOAK / ÁMBITOS	LAN-HIZKUNTZA LENGUA DE TRABAJO	ARLOAK / ÁMBITOS	Sortze-Hizkuntza <i>Lengua De Creación</i>

Eta honako hau da aginte-panela:

Y este es el cuadro de mando:

KUDEAKETA / GESTIÓN			
Euskararen Kudeaketa Orokorra / Gestión General Del Euskera	1.	Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da. Se hace un seguimiento sistemático de los planes de uso y criterios lingüísticos.	
Lidergoa Liderazgo	2.	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. / Los responsables (políticos y técnicos) participan en el diseño, desarrollo y seguimiento de los planes de uso.	
	3.	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezen. / Los responsables políticos y técnicos muestran una actitud proactiva para el cumplimiento de los objetivos fijados en el plan de uso.	
Langileak / Plantilla	4.	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte. La plantilla cumple los criterios lingüísticos correspondientes.	
Hizkuntza-Klausulak Cláusulas Lingüísticas	5.	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetoako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. Se lleva a cabo un seguimiento sistemático del cumplimiento de las cláusulas lingüísticas de los contratos.	
ERABILERA / USO			
ZERBITZU- HIZKUNTZA LENGUA DE SERVICIO	Herritarrekiko Harremanak Relaciones Con La Ciudadanía	6.	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. / Los y las trabajadoras ofrecen a la ciudadanía una manera activa de hablar en euskera, antes de que elijan la lengua.
		7.	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz. / Las personas que lo soliciten serán atendidas oralmente en euskera.
		8.	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. / Los eventos y cursos para la ciudadanía se ofrecen en euskera.
		9.	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. / Los documentos se envían a la ciudadanía en euskera o en ambas lenguas.
		10.	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz. / Los documentos presentados en euskera por la ciudadanía o las personas que han optado por el uso del euskera se responden por escrito en euskera.
LAN-HIZKUNTZA LENGUA DE TRABAJO	Barne-Harremanak Relaciones Internas	11.	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. / La relación de trabajo oral entre compañeros y compañeras es en euskera.
		12.	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira. / Las comunicaciones de trabajo escritas dentro de la institución son en euskera.
	Kanpo-Harremanak Relaciones Externas	13.	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. / Las comunicaciones escritas con las entidades del sector público son en euskera o en ambas lenguas.
		Sortze Hizkuntza Lengua De Creación	14.

Lehenago aipatu dugun bezala, EAEko sektore publikoa-ren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 Dekretuaren arabera, besteak beste, **erakunde guztiek eskuratu behar dizkiote Eusko Jaurlaritzari 14 adierazle esanguratsuenen informazioa**; gutxienez, plangintzaldiaren lehenengo, hirugarren eta bosgarren urteetan.

Esan bezala, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak osatzeko gidalerro eta adierazle-sistema berriak hartu ditugu aintzat.

Prozesua metodologikoki bideratzeko talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratu ditugu, eta, horretarako, bi egitura sortu ditugu:

Tal y como se ha mencionado anteriormente, el Decreto 19/2024, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en el sector público de la CAPV, establece, entre otros aspectos, **que todas las instituciones deben darle al Gobierno Vasco la información de los 14 indicadores más significativos**, al menos en el primer, tercer y quinto año del periodo de planificación.


Como se ha señalado, se han tenido en cuenta las nuevas directrices y sistemas de indicadores para la elaboración de los Planes de Normalización del Uso del Euskera.

Para orientar el proceso de manera metodológica se ha llevado a cabo una reflexión grupal y una relación de grupo, creando dos estructuras:

TALDE ERAGILEA GRUPO MOTOR	EGITURA ERAGILEA ESTRUCTURA OPERATIVA
PARTAIDEAK / PARTICIPANTES	PARTAIDEAK / PARTICIPANTES
	
• Alkatea • Euskara-teknikaria • Elhuyarreko aholku-lariak	• Arduradun politikoak • Sailetako arduradunak eta teknikariak • Euskara-teknikaria • Elhuyarreko aholku-lariak
FUNTZIOAK / FUNCIONES	FUNTZIOAK / FUNCIONES
• Prozesua antolatu eta koordinatu (galdetegiak, Egitura Eragilea, garapeneko urratsak...). • Diagnostikoa osatzeko datuak bildu. • Behin betiko Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Planak adostu. • Plana garatzeko urrats nagusiak planifikatu. • Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu.	• Diagnostikoa kontrastatu eta osatu. • VII. Plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak proposatu eta adostu. • Planaren garapenean eta jarraipenean parte hartu. • Plan estrategikoa garatzeko ekintzak, epeak eta arduradunak proposatu eta adostu.

Urratsei dagokienez, honako eskema jarraitu da prozesu osoa bideratzeko:

En cuanto a los pasos, se ha seguido el siguiente esquema para orientar todo el proceso:



3. DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa egiteko, informazio kualitatiboa eta kuantitati-
boa erabili dugu. Adierazle kuantitatiboak hasierako egoera
zein den jakiteko erreminta egokiak izan dira, baina informa-
zio kualitatiboa erabiliz, egoera ezagutzeaz gain, egoera hori
hobeto ulertu eta interpretatu ahal izan dugu.

Jarraian jaso dugu euskararen erabilera eta presentziaren
egoeraren argazkia; KEMEN markoaren atal bakoitzean era-
kundera zein puntutan dago zehaztu dugu.

3. DIAGNÓSTICO

El diagnóstico se ha hecho con información cualitativa y
cuantitativa. Los indicadores cuantitativos han sido una he-
rramienta adecuada para conocer la situación inicial; no obs-
tante, usando información cualitativa, además de conocer
la situación, hemos podido comprender e interpretar mejor
dicha situación.

A continuación, se recoge una fotografía de la situación del
uso y presencia del euskera, especificando en qué punto se
encuentra la organización en cada uno de los apartados del
marco KEMEN.

3.1. Kudeaketa / Gestión

ARLOA / ÁMBITO	ONDORIOAK / CONCLUSIONES
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA GESTIÓN GENERAL DEL EUSKERA	Beasaingo Udalean ez dago plan estrategikoa kudeatzeko sistema egiturarik, eta ez da kudeaketa-planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematizaturik egiten; bai, ordea, plan estrategikoarena, plangintzaldiaren erdiko eta amaierako ebaluazioaren bidez. <i>En el Ayuntamiento de Beasain no existe una estructura de sistema de gestión del plan estratégico, ni se lleva a cabo un seguimiento sistematizado del plan de gestión y de los criterios lingüísticos, pero sí del plan estratégico mediante la evaluación a mitad y final del periodo de planificación.</i>
LIDERGOA LIDERAZGO	Arduradun politikoak, oro har, proaktiboak dira. Planaren garapen eta jarraipenerako ardurak banatzen dituzte eta adostutakoa betearazten dute, hala eskatzen zaienean, baina ez modu sistematikoan. <i>Los responsables políticos en general son proactivos. Distribuyen las responsabilidades de desarrollo y seguimiento del Plan y ejecutan lo acordado cuando se les requiere, pero no de forma sistemática.</i>
LANGILEAK PLANTILLA	Langileei hizkuntza-irizpideei buruzko informazio erdizka ematen zaie; irizpideen betetze-maila % 75 (beti edo ia beti). <i>Se informa al personal a medias sobre los criterios lingüísticos. El grado de cumplimiento de los criterios es del 75 % (siempre o casi siempre).</i>
GAITASUNA CAPACIDAD	- Galdetegia erantzun duten langileen % 100ak lanpostuko funtzioak euskaraz ahoz betetzeko gaitasuna daukala adierazi du. <i>El 100 % de las y los trabajadores que han contestado el cuestionario manifiestan tener capacidad para desempeñar las funciones del puesto en euskera de forma oral.</i> - Idatzizkoaren kasuan, langileen % 96k gaitasun oso handia edo gaitasun handia duela adierazi du; % 4ak, aldiz, zailtasun gehiago ditu funtzioak idatziz betetzeko. <i>En el caso del medio escrito, el 96 % de la plantilla declara tener una capacidad alta o muy alta para desenvolverse en euskera, mientras que el 4 % tiene más dificultades para llevar a cabo sus funciones por escrito.</i> - Arduradun politiko guztiek euskara ulertzeko gaitasuna dute; eta gehienak haien funtzioak euskaraz egiteko gai dira. <i>Todos los responsables políticos tienen capacidad para entender el euskera; y la mayoría son capaces de llevar a cabo sus funciones en euskera.</i>
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA ESTRATEGIA PARA FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA	Herritarrei eta interes-taldeei euskararen erabilera sustatzeko estrategia komunikatzen zaie, baina ez modu sistematikoan; eta, oro har, erakundeak ez du parte hartzen beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan. <i>Se comunica a la ciudadanía y a los grupos de interés la estrategia para fomentar el uso del euskera, pero no de forma sistemática, y en general la organización no participa en iniciativas para conocer otras experiencias.</i>
HIZKUNTZA-KLAUSULAK CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS	Kontratu eta dirulaguntzetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira sistematikoki; baina jarraipena ez da modu sistematikoan egiten; noizbehinka egiten da, kontratu batzuetan, eta erakundearen zenbait ataletan. <i>En los contratos y subvenciones se incluyen sistemáticamente cláusulas lingüísticas, pero el seguimiento no es sistemático, sino esporádico, en algunos contratos y en diferentes departamentos de la institución.</i>

3.2. Erabilera / Uso

Zerbitzu-hizkuntza / Lengua de servicio

ARLOA / ÁMBITO	ONDORIOAK / CONCLUSIONES
IRUDIA IMAGEN	• Errotulu, ikus-entzunezko eta eduki digitaletan hizkuntza-irizpideak errespetatzen dira. <i>En los rótulos, productos audiovisuales y contenidos digitales se respetan los criterios lingüísticos.</i> • Agerraldi instituzionalen erdia gazteleraz egin ohi da. <i>La mitad de las comparecencias institucionales se hacen en castellano.</i>
HERRITARREKIKO HARREMANAK RELACIONES CON LA CIUDADANÍA	• Herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen, langileen % 84k euskaraz eskaintzen du zerbitzua beti edo ia beti. <i>Antes de que las personas elijan el idioma, el 84 % de la plantilla ofrece el servicio siempre o casi siempre en euskera.</i> • Langileen % 98k euskaraz eskatzen duten herritarrei hizkuntza horretan ematen dizkie ahozko azalpenak, beti edo ia beti. <i>El 98 % de la plantilla da explicaciones orales en euskera, siempre o casi siempre, a las personas que lo solicitan.</i> • Ikastaroen % 30 euskaraz eskaintzen da, eta ekitaldietan % 60an ematen zaie informazioa euskaraz herritarrei. <i>El 30 % de los cursos se ofrecen en euskera y en los eventos se informa en un 60 % en euskera.</i>

Lan-hizkuntza / Lengua trabajo

ARLOA / ÁMBITO	ONDORIOAK / CONCLUSIONES
BARNE-HARREMANAK RELACIONES INTERNAS	• Barne-harremanei dagokienez, lan-bileren % 95 euskaraz izaten da, eta laneko solasaldien % 95 inguru euskaraz izan ohi da. <i>En cuanto a las relaciones internas, el 95 % de las reuniones de trabajo son en euskera, y alrededor del 95 % de las conversaciones de trabajo son en euskera.</i> • Idatzizko komunikazioak % 89an egiten dira euskaraz, eta prozedura administratiboak eta xedapen orokorrak % 100ean euskaraz jartzen dira abian. <i>El 89 % de las comunicaciones escritas son en euskera y el 100 % de los procedimientos administrativos y disposiciones generales se ponen en marcha en euskera.</i>
KANPO-HARREMANAK RELACIONES EXTERNAS	• Langileen % 83 inguru sektore publikoko langileekin beti edo ia beti euskaraz komunikatzen da ahoz; sektore pribatuarekin, aldiz, % 69. Idatzizko komunikazioak ele bietan izaten dira. <i>En torno al 83 % del personal se comunica oralmente con el personal del sector público siempre o casi siempre en euskera, frente al 69 % del sector privado. Las comunicaciones escritas son bilingües.</i>
PRESTAKUNTZA FORMACIÓN	• Beasaingo Udalak % 100ean eskaintzen die langileei prestakuntza orokorra euskaraz edo ele bietan; eta langileen % 64k jasotzen du prestakuntza euskaraz. <i>El Ayuntamiento de Beasain ofrece al 100 % del personal formación general en euskera o formación bilingüe y el 64 % del personal recibe formación en euskera.</i>
BALIABIDE INFORMATIKOAK RECURSOS INFORMÁTICOS	• Erakundeak % 70ean jartzen ditu langileen esku euskarazko baliabide informatikoak (aplikazioak, ofimatika...); hau da, langileek baliabide informatikoen % 70 dituzte euskaraz erabilgarri. <i>La entidad pone a disposición de la plantilla el 70 % de los recursos informáticos en euskera (aplicaciones, ofimática...); es decir, el personal dispone del 70 % de los recursos informáticos disponibles en euskera.</i> • Langileen % 75ek euskaraz erabiltzen ditu baliabide informatikoak. <i>El 75 % de la plantilla utiliza los recursos informáticos en euskera.</i>
SORTZE-HIZKUNTZA LENGUA DE CREACIÓN	• Galdetegia bete duten langileen % 87k euskaraz sortzen ditu euskaraz edo ele bietan zabaldu behar diren dokumentuak. <i>El 87 % del personal que ha cumplimentado el cuestionario redacta en euskera los documentos que deben difundirse en euskera o de forma bilingüe.</i>

Edozein modutan, informazio horretan sakondu nahi izanez gero, diagnostiko osoa jasotzen duen dokumentura jo.

En cualquier caso, para profundizar en esta información, acuda al documento que recoge el diagnóstico completo.

4. BEASAINGO UDALEKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

4.1. Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremuak Beasaingo Udala eta bere ekipamendu guztiak hartzen ditu, eta atal guztietara hedatuko da.

4.2. Eragin-epea

19/2024 Dekretuak zehazten duenez, Plan estrategikoak plangintzaldi osoa hartuko du. Beraz, Plan honen eragin-al-dia onartzen den egunean hasi eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalizaziorako prozesua-ren VII plangintzaldia amaitzen den egunean.

4.3. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak

Beasaingo Udalak 2027an non egon nahi duen hausnartuta, plan honen erronka nagusiak definitu ditu:

4. PLAN ESTRATÉGICO DEL EUSKERA DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

4.1. Área de influencia

El ámbito de afección de este Plan abarca al Ayuntamiento de Beasain y a todos sus equipamientos y se extenderá a todas sus secciones.

4.2. Plazo de efectos

El Decreto 19/2024 especifica que el Plan estratégico abarcará todo el periodo de planificación. Por tanto, el periodo de vigencia del presente Plan se iniciará el día de su aprobación y finalizará el 31 de diciembre de 2027, fecha en la que finaliza el VII Periodo de planificación del proceso de normalización lingüística de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.3. Retos y objetivos estratégicos del Plan

El Ayuntamiento de Beasain reflexiona sobre dónde quiere estar en 2027 y define los principales retos de este plan:

KUDEAKETA / GESTIÓN		
ERRONKA RETO	Udalaren hizkuntza-irizpideak ,argiak izan daitezen, aztertzea, zehaztea eta eragindako guztiei komunika-tzea; horretarako, planaren jarraipena egiteko egitura antolatzea.	Analizar, concretar y comunicar de forma clara a todas las personas afectadas los criterios lingüísticos del Ayunta-miento, articulando la estructura de seguimiento del Plan.
ERABILERA / USO		
ERRONKA RETO	Euskararen presentzia eta erabilera areagotzea eta atzera bueltarik izan ez dezaten neurriak hartzea.	Incrementar la presencia y el uso del euskera y adoptar medidas para evitar retrocesos.

Era berean, erronka horiek lortzeko zer egin behar den adostu da, eta horrela definitu dira planaren erronkei eusteko helburu estrategikoak:

Asimismo, se ha acordado lo que hay que hacer para alcanzar estos retos, definiendo así los objetivos estratégicos para mantener los retos del Plan:

HELURU ESTRATEGIKOAK / OBJETIVOS ESTRATÉGICOS	
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA GESTIÓN GENERAL DEL EUSKERA	Hizkuntza-irizpideak ondo zehaztea, komunikatzea eta jarraipena egitea; horretarako lanerako egitura antolatuz. <i>Definir, comunicar y llevar a cabo un seguimiento de los criterios lingüísticos, organizando la estructura de trabajo.</i>
LIDERGOA LIDERAZGO	- Lidergo politikoa indartzea, teknikarien asistentziarekin. <i>Reforzar el liderazgo político con la asistencia del personal técnico.</i> - Udal-korporazioa osatzen denean eta politikariei harrera egiten zaienean udalaren irizpideak adieraztea. <i>Expresar los criterios municipales cuando se constituye la corporación municipal y se recibe a los políticos.</i>
LANGILEAK PLANTILLA	Hizkuntza-irizpideak langile guztiei argi komunikatzea, eta atzerapausoak ez emateko neurriak hartzea; langile berriei bereziki. <i>Comunicar de forma clara los criterios lingüísticos a toda la plantilla y adoptar medidas para evitar retrocesos, especialmente a los nuevos trabajadores.</i>
HIZKUNTZA-GAITASUNA CAPACIDAD LINGÜÍSTICA	Langileek haien funtzioak euskaraz betetzeko gaitasuna areagotzea sustatu. <i>Fomentar la capacitación de los trabajadores para desempeñar sus funciones en euskera.</i>
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN DE LA ESTRATEGIA DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA	Udal barruko zein kanpoko guztiei udalak egiten duena komunikatzea. <i>Comunicar lo que hace el Ayuntamiento a todo el mundo dentro y fuera del Ayuntamiento.</i>
HIZKUNTZA-KLAUSULAK CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS	Hizkuntza-klausulen jarraipena nola egin adostea eta kontratuen jarraipena egitea. <i>Acordar el seguimiento de las cláusulas lingüísticas y llevar a cabo el seguimiento de los contratos.</i>
IRUDIA IMAGEN	Udalak zein azpikontratutako zerbitzuek hizkuntza-irizpideak betetzea, nagusiki herritarrekiko harremanetan. <i>Cumplir los criterios lingüísticos tanto por parte del Ayuntamiento como de los servicios subcontratados, principalmente en las relaciones con la ciudadanía.</i>
HERRITARREKIKO HARREMANAK RELACIONES CON LA CIUDADANÍA	Herritarrei hizkuntza-irizpideen berri ematea, eta udalarekiko harremanetan herritarrek euskaraz gehiago aritzera bultzatzea. <i>Informar a la ciudadanía sobre los criterios lingüísticos y fomentar el mayor uso del euskera en las relaciones con el Ayuntamiento.</i>
BARNE-HARREMANAK RELACIONES INTERNAS	Langileen artean euskararen erabilera areagotzea, bai ahoz zein idatziz. <i>Incrementar el uso del euskera entre los trabajadores, tanto oralmente como por escrito.</i>
KANPO-HARREMANAK RELACIONES EXTERNAS	Kanpo-harremanetan, oro har, baina sektore publikoarekiko harremanetan, bereziki, harremana euskaraz izan dadin sustatzea. <i>Promover la interrelación en euskera en las relaciones externas en general, pero con el sector público en particular.</i>
PRESTAKUNTZA FORMACIÓN	Eskaintzen den prestakuntza euskaraz izatea. <i>Que la formación ofertada sea en euskera.</i>
BALIABIDE INFORMATIKOAK RECURSOS INFORMÁTICOS	Euskaraz dauden baliabideak, ahal den neurrian, euskaraz erabiltzea. <i>Utilizar en la medida de lo posible los recursos en euskera.</i>
SORTZE-HIZKUNTZA LENGUA DE CREACIÓN	Sortze-prozesuan irizpideak adostea; eta hainbat dokumentu euskara hutsez sortzea. <i>Consensuar criterios en el proceso de creación; y crear varios documentos íntegramente en euskera.</i>

4.4. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta derrigortasun-indizea

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 25. artikulua arabera, derrigortasun-indizeak adierazten du entitate bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuru osoaren ehunekoa.

Honela kalkulatu da derrigortasun-indizea:
DI= EUSKALDUNAK + (IA-EUSKALDUNAK/2)

Horretarako, kontuan hartuko da EAEko biztanleen euskararen jakite-mailari buruzko informazioa, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsu edo Estatistikaren azken datuetan oinarrituta, eta, hala badagokio, plangintzaldi bakoitzaren hasieran indarrean dauden balidazio-taula orokorretan.

Euskal sektore publikoko entitate bakoitzari dagokion indizea kalkulatzeko, haren jardunaren lurralde-eremua hartuko da kontuan. Hala ere, lurralde-eskumen mugatuagoa duten lurralde-deskontzentratutako unitateek beren jarduera-eremu espezifikoari dagokion indizea bete beharko dute.

Horren arabera, VII. plangintzaldi honetan, **Beasaingo Udalean nahitaez bete beharreko indizea % 67,28 da.** Derrigortasun-indize hori 2021eko erroldako datu soziolingüistikoaren arabera ateratakoa da (EUSTATEk eman dituen 2021eko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren arabera. 2021/01/01).

4.4. Perfiles lingüísticos, fechas de preceptividad e índice de preceptividad

Según el artículo 25 del Decreto 19/2024, de normalización del uso del euskera en el sector público vasco, el índice de preceptividad indica el porcentaje del número total de puestos de trabajo que deben tener perfil lingüístico preceptivo en cada entidad y en cada periodo de planificación.

El índice de preceptividad se calculará de la siguiente manera: **IP = VASCOPARLANTES + (CASI-VASCOPARLANTES/2)**

Para ello, se tendrá en cuenta la información relativa al conocimiento del euskera de la población de la CAPV, a partir de los últimos datos del Censo o Estadística de Población y Vivienda y, en su caso, de las tablas generales de validación vigentes al inicio de cada periodo de planificación.

Para el cálculo del índice correspondiente a cada una de las entidades del sector público vasco se tendrá en cuenta su ámbito territorial de actuación. No obstante, las unidades desconcentradas territoriales con competencia territorial más limitada deberán cumplir el índice correspondiente a su ámbito específico de actuación.

En este VII Periodo de Planeamiento **el índice de obligado cumplimiento para el Ayuntamiento de Beasain es del 67,28 %.** Este índice de preceptividad se deriva de los datos sociolingüísticos del padrón de 2021 (según la Estadística de Población y Vivienda 2021 facilitada por EUSTAT. 01/01/2021).

EUSKALDUNAK VASCOPARLANTES	IA-EUSKALDUNAK CASI VASCOPARLANTES	DI = EUS-IA-EUS/2 IP = VASCOP-CASI-VASCOP/2
% 58,92	% 16,73	% 67,28

Derrigortasun-indizeak gutxieneko ehunekoa adierazten du. Alergia, erakunde bakoitzak ehuneko horretatik gora jo deza ke, bere egoeraren arabera.

Derrigortasun-indizearen betetze-maila

19/2024 Dekretuaren 22. artikuluan xedatuta datorren moduan, hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa. Euskal sektore publikoko entitateetako lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera –hala badagokio–, nahitaez adierazi beharko da entitatearen lanpostu-zerrendan.

El índice de preceptividad indica el porcentaje mínimo. Es decir, cada entidad puede ir por encima de ese porcentaje en función de su situación.

Grado de cumplimiento del índice de preceptividad

Tal y como dispone el artículo 22 del Decreto 19/2024, el perfil lingüístico determina el conjunto de niveles de competencia en euskera necesarios para el desempeño del puesto de trabajo. Cada puesto de trabajo de las entidades del sector público vasco tendrá asignado su perfil lingüístico que, junto con la fecha de preceptividad, en su caso, deberá figurar obligatoriamente en la relación de puestos de trabajo de la entidad.

19/2044 Dekretuaren 23. artikulua arabera, lanpostu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen denean, euskal sektore publikoko entitateen zerbitzuko langileei aitortzen zaie lanpostu horri dagozkion eginkizunak euskaraz betetze-ko behar duten gaitasuna.

Era berean, 23.2 artikulua zehazten duenez, entitatearen lanpostu-zerrendan derrigortasun-data beteta badago, nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea dena delako lanpostua eskuratzeko eta bertan jarduteko.

19/2024 Dekretuaren 24. artikuluan zehazten denez, derrigortasun-datak adierazten du lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizunak noiztik behar duen egiaztatuta izan. Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete beharko da dagokion lanpostu eskuratzeko eta bertan jarduteko, dekretu honetan salbuespenerako aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Behin derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostua betetzen duenak entitatearen hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan agindutakoaren arabera bete beharko ditu bere eginkizunak. Euskal sektore publikoko entitateek beren hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan jaso dezakete ezen hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu bat betetzen duten langile guztiek euskara ere lan-hizkuntza gisa erabili beharko dutela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute. (24.3)

Beasaingo Udaleko azken Lanpostu Zerrendaren arabera 95 lanpostu daude, eta horietako 82tan derrigortasun-data ezarrita dago, hau da, lanpostuen % 86an.

Según el artículo 23 del Decreto 19/2044, cuando se acredita el perfil lingüístico correspondiente a un puesto de trabajo, se reconoce al personal al servicio de las entidades del sector público vasco la capacidad necesaria para desempeñar las funciones correspondientes a dicho puesto en euskera.

Asimismo, el artículo 23.2 determina que, una vez cumplida la fecha de preceptividad en la relación de puestos de trabajo de la entidad, será preceptivo el cumplimiento del perfil lingüístico para el acceso y desempeño del puesto de trabajo de que se trate.

El artículo 24 del Decreto 19/2024 establece que la fecha de preceptividad es la fecha desde la que el puesto de trabajo debe tener acreditado el perfil lingüístico asignado. A partir de la fecha de preceptividad deberá cumplirse el perfil lingüístico para el acceso y desempeño del puesto de trabajo de que se trate, salvo en los supuestos de exención previstos en este Decreto.

Una vez vencida la fecha de preceptividad, quien ocupe el puesto deberá ejercer sus funciones de acuerdo con lo que se determine en los criterios de uso de las lenguas oficiales de la entidad. Las entidades del sector público vasco podrán incluir en los criterios de uso de sus lenguas oficiales que todo el personal que ocupe un puesto de trabajo con perfil lingüístico preceptivo deberá utilizar también el euskera como lengua de trabajo, siempre que tengan acreditado el perfil lingüístico. (24.3)

Según la última Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Beasain hay 95 plazas, en 82 de las cuales se establece la fecha de preceptividad, es decir, en el 86 % de las plazas.

LANPOSTU KOPURUA ÚMERO DE PUESTOS	DERRIGORTASUN- DATADUNAK CON FECHA DE PRECEPTIVIDAD	VII. PLANGILTZALDIAREN NAHITAEZKO DERRIGORTASUN-INDIZEA ÍNDICE DE PRECEPTIVIDAD OBLIGATORIA DEL VII PERIODO DE PLANIFICACIÓN
%95	%82 (% 86)	% 67,28

19/2024 Dekretuaren 24.4 artikulua xedatutakoaren arabera, plangintzaldi bakoitzean, entitateen plan estrategikoa onartzearekin batera, derrigortasun- data berriak ezarriko dira, hala dagokio. Beraz, VII. plangintzaldian Beasaingo Udalak 19/2024 Dekretuaren ezarpenak betetze aldera, derrigortasun-data berriak ezarriko ditu.

El artículo 24.4 del Decreto 19/2024 establece que, en cada periodo de planificación, junto con la aprobación del plan estratégico de las entidades, se establecerán nuevas fechas de preceptividad, según proceda. Por tanto, en el VII Periodo de Planificación, el Ayuntamiento de Beasain establecerá nuevas fechas de preceptividad para cumplir las previsiones del Decreto 19/2024.

5. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

19/2024 Dekretuaren 7. artikulua arabera, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartuko ditu, bere barne-antolamenduko arauari jarraituz. Onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dira.

Era berean zehazten duenez, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak denboran irauteko tresna bat dira; plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko.

Beasaingo Udalak, 2024-2027 epealdirako, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Irizpideak hartu ditu oinarri, irizpideak onartu eta argitaratuko ditu.

6. 2024-2027 PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2022ko planaren ebaluaziotik abiatuta, 2024ko diagnostikoa osatu dugu, Plan Estrategiko berriaren abiapuntua, hain zuzen ere.

Hala, VII. plangintzaldiaren hasieran bildutako autoebaluazio-datuetan oinarrituta KEMENeko arlo guztiei buruzko hausnarketa kuantitatibo zein kualitatiboa egin da. Horretarako, arloz arloko balorazioa egin du Erabilera Batzordeak, indarguneak eta zer hobetuak identifikatuz. Esan bezala, hausnarketa horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren erronkak eta horretarako helburu estrategikoak, neurriak eta bitartekoak identifikatu dira.

Jarraian, erronka eta helburu estrategiko horiek lantzeko KEMENeko adierazleen egungo egoera eta aurreikuspenak jaso ditugu, horixe izango da gure ibilbide-orria, gure plan estrategikoa, alegia.

Urdinez markatuta daude daude Aginte Paneleko 14 adierazleak eta grisez erakundeak aukeratutako gainontzeko adierazleak.

5. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Según el artículo 7 del Decreto 19/2024, cada entidad del sector público vasco aprobará sus Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales, de acuerdo con sus propias normas de organización interna. Una vez aprobados, deberán publicarse en la página web de la entidad.

Asimismo, especifica que los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales son un instrumento permanente en el tiempo, sin que la duración de los periodos de planificación y de los planes estratégicos condicione su vigencia.

El Ayuntamiento de Beasain, para el periodo 2024-2027, se ha basado en los Criterios Lingüísticos del Gobierno Vasco, que serán aprobados y publicados.

6. PLAN ESTRATÉGICO 2024-2027

A partir de la evaluación del plan 2018-2022 se ha completado el diagnóstico 2024, punto de partida del nuevo Plan Estratégico.

Así, a partir de los datos de autoevaluación recogidos al inicio del VII Periodo de planificación, se ha hecho una reflexión tanto cuantitativa como cualitativa sobre todas las áreas de KEMEN. Para ello, la Comisión de Uso ha llevado a cabo una valoración sectorial, identificando los puntos fuertes y los puntos a mejorar. Esta reflexión ha permitido identificar los retos, los objetivos estratégicos, las medidas y los medios que se quieren alcanzar hasta 2027.

A continuación, se recoge la situación actual y las previsiones de los indicadores de KEMEN para elaborar estos retos y objetivos estratégicos, que será nuestra hoja de ruta, nuestro plan estratégico.

En azul están marcados los 14 indicadores del Cuadro de Mando y en gris el resto de los indicadores seleccionados por la organización.

KUDEAKETA / GESTIÓN % 43						
Kudeaketaren erronka Reto de gestión	Udalaren hizkuntza-irizpideak argiak izan daitezten, aztertzea, zehaztea eta eragindako guztiei komunikatzea; horretarako, planaren jarraipena egiteko egitura antolatzea. Analizar, concretar y comunicar de forma clara a todas las personas afectadas los criterios lingüísticos del Ayuntamiento, articulando la estructura de seguimiento del Plan.					
	ARLOA ÁMBITO	HELBURU ESTRATEGIKOAK OBJETIVOS ESTRATÉGICOS	HELBURUAK / OBJETIVOS			
		ZK Nº	ADIERAZLEAK INDICADORES	BISIOA / VISIÓN		
				HASIERA- KO EGOERA SITUACIÓN INICIAL 2024 %	AURREI- KUSITAKO EGOERA SITUACIÓN PREVISTA 2027 %	ALDEA IGOERA % DIFERENCIA INCREMENTO %
1.0.1 EUSKARA- REN KUDEAKETA OROKORRA 1.0.1 GESTIÓN GENERAL DEL EUS-KERA	Hizkuntza-irizpideak ondo zehaztea, komunikatzea eta jarraipena egitea; horretarako lanerako egiturak antolatuz. Definición, comunicación y seguimiento de los criterios lingüísticos, organizando las estructuras de trabajo.	1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du. <i>La organización ha elaborado un sistema estructurado de gestión de planes estratégicos y de gestión.</i>	% 0	% 100	% 100
		2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da. <i>Se hace un seguimiento sistemático de los planes estratégicos, planes de gestión y criterios lingüísticos.</i>	% 50	% 100	% 50
1.0.2 LIDERGOA 1.0.2 LIDERAZGO	Lidergo politikoa indartzea, teknikarien asistentziarekin. <i>Reforzar el liderazgo político con la asistencia del personal técnico.</i> Udal-korporazioa osatzen denean eta politikariei harrera egiten zaientean irizpideak adieraztea. <i>Expresar los criterios cuando se constituye la corporación municipal y se recibe a los políticos.</i>	3	Arduradun politiko eta teknikoei parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. <i>Los responsables políticos y técnicos participan en el diseño, desarrollo y seguimiento de los planes de uso.</i>	% 17	%100	%83
		4	Arduradun politiko eta teknikoei jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten. <i>Los responsables políticos y técnicos muestran una actitud proactiva para el cumplimiento de los objetivos fijados en los planes estratégicos y de gestión.</i>	% 75	%100	%25

1.0.3 LANGILEAK 1.0.3 PLANTILLA	Hizkuntza-irizpideak langile guztiei komunikatzea, eta atzerapausoak ez emateko neurriak hartzea; langile berriei bereziki. <i>Comunicar los criterios lingüísticos a toda la plantilla y adoptar medidas para evitar retrocesos, especialmente a los nuevos trabajadores.</i>	7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten. <i>Se informa a la plantilla sobre los planes estratégicos, de gestión y de los criterios lingüísticos de la organización y tiene claro cuáles deben cumplir en su actuación.</i>	% 66	% 100	% 33
		8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte. <i>La plantilla cumple los criterios lingüísticos correspondientes.</i>	% 75	% 100	% 25
		9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginizunak. <i>El personal lleva a cabo las funciones acordadas en el plan de gestión.</i>	% 28	% 50	% 22
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA 1.0. 5 COMUNICACIÓN DE LA ESTRATEGIA DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA	Udal barruko zein kanpoko guztiei udalak euskara sustatzeko egin duena komunikatzea. <i>Comunicar a todas las personas, tanto de dentro como de fuera del Ayuntamiento, lo que el Ayuntamiento ha hecho para la promoción del euskera.</i>	14	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei. <i>La institución informa a la ciudadanía y a los grupos de interés su estrategia para fomentar el uso del euskera.</i>	% 75	% 100	% 25
		18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. <i>Se lleva a cabo un seguimiento sistemático del cumplimiento de las cláusulas lingüísticas de los contratos.</i>	% 25	% 50	% 25
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK 1.0.6 CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS	Hizkuntza-klausulen jarraipena nola egin adostea eta kontratuen jarraipena egitea. <i>Acordar el seguimiento de las cláusulas lingüísticas y llevar a cabo el seguimiento de los contratos.</i>	19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmen-tako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. <i>Se lleva a cabo un seguimiento sistemático del cumplimiento de las cláusulas lingüísticas de las subvenciones y convenios.</i>	% 25	% 50	% 25

ERABILERA / USO % 81						
Erabileraren erronka El reto del uso	Euskararen presentzia eta erabilera areagotzea eta atzera bueltarik izan ez dezaten neurriak hartzea. Incrementar la presencia y el uso del euskera y adoptar medidas para evitar retrocesos.					
	ARLOA ÁMBITO	HELBURU ESTRATEGIKOAK OBJETIVOS ESTRATÉGICOS	HELBURUAK / OBJETIVOS			
			ZK Nº	ADIERAZLEAK INDICADORES	BISIOA / VISIÓN	
					HASIERAKO EGOERA SITUACIÓN INICIAL 2024 %	AURREI- KUSITAKO EGOERA SITUACIÓN PREVISTA 2027 %
					ALDEA IGOERA % DIFERENCIA INCREMENTO %	
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA : %66,6 2.1 LENGUA DE SERVICIO : 66,6 %	2.1.1 IRUDIA 2.1.1 IMAGEN	Udalak zein azpiktratatutako zerbitzuek hizkuntza-irizpideak betetzea, nagusiki herritarreki-ko harremanetan. Cumplir los criterios lingüísticos tanto por parte del Ayuntamiento como de los servicios subcontratados, principalmente en las relaciones con la ciudadanía.	23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan. <i>La institución utiliza el euskera en sus comparecencias institucionales.</i>	% 50	% 100
			24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahaz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen. <i>Los y las trabajadoras ofrecen a la ciudadanía una manera activa de hablar en euskera, antes de que elijan la lengua.</i>	% 87	% 100
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK 2.1.2 RELACIONES CON LA CIUDADANÍA	Herritarrei hizkuntza-irizpideen berri ematea, eta udalareki-ko harremanetan herritarrek euskaraz gehiago aritzera bultzatzea. Informar a la ciudadanía sobre los criterios lingüísticos y fomentar el mayor uso del euskera en las relaciones con el Ayuntamiento.	25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahaz. <i>Las personas que lo soliciten son atendidas en euskera, de forma oral.</i>	% 98	% 100
			26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira. <i>Los eventos y cursos para la ciudadanía se ofrecen en euskera.</i>	% 45	% 100
			27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. <i>Los documentos se envían a la ciudadanía en euskera o en ambas lenguas.</i>	% 50	% 100
			28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz. <i>Los documentos presentados en euskera por la ciudadanía o a las personas que han optado por el uso del euskera se les responde por escrito en euskera.</i>	% 50	% 100

2.2.1 BARNE HARREMANAK 2.2.1 RELACIONES INTERNAS		Langileen artean euskararen erabilera areagotzea, bai ahoz zein idatziz. <i>Incrementar el uso del euskera entre la plantilla, tanto oralmente como por escrito.</i>	32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira. <i>Las reuniones de trabajo son en euskera.</i>	% 95	% 100	% 5
			33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. <i>La relación de trabajo oral entre compañeros y compañeras es en euskera.</i>	% 94	% 100	% 6
			35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira. <i>Las comunicaciones de trabajo escritas dentro de la institución son en euskera.</i>	% 89	% 100	% 11
2.2.2 KANPO-HARREMANAK 2.2.2 RELACIONES EXTERNAS		Kanpo-harremanetan, oro har, baina sektore publikoarekiko harremanetan, bereziki, harremana euskaraz izan dadin sustatzea. <i>Promover la interrelación en euskera en las relaciones externas en general, pero con el sector público en particular.</i>	39	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak. <i>Los documentos se envían en euskera o bilingües a las entidades del sector público.</i>	% 100	% 100	% 0
			40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana. <i>El contacto oral con las empresas privadas es en euskera.</i>	% 69	% 90	% 21
			41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. <i>Las comunicaciones escritas con empresas privadas son en euskera o bilingües.</i>	% 100	% 100	% 0
2.2.3 PRESTAKUNTZA 2.2.3 FORMACIÓN		Eskaintzen den prestakuntza euskaraz izatea. <i>Que la formación ofertada sea en euskera.</i>	43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. <i>La institución ofrece formación general en euskera a su plantilla.</i>	% 100	% 100	% 0
			44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra. <i>La plantilla recibe formación general en euskera.</i>	% 64	% 100	% 36
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK 2.2.4 RECURSOS INFORMÁTICOS		Euskaraz dauden baliabideak, ahal den neurrian, euskaraz erabiltzea. <i>Utilizar en la medida de lo posible los recursos en euskera.</i>	46	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak. <i>El personal utiliza en euskera las aplicaciones informáticas disponibles en euskera.</i>	% 75	% 90	% 15
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA 2.2.5 LENGUA DE CREACIÓN		Sortze-prozesuan irizpideak adostea; eta hainbat dokumentu euskara hutsez sortzea. <i>Consensuar criterios en el proceso de creación; y crear varios documentos íntegramente en euskera.</i>	48	Euskaraz sortzen dira dokumentuak. <i>Los documentos se generan en euskera.</i>	% 87	% 95	% 8

2.2.2 LENGUA DE TRABAJO: 26,8 %
2.2.1 LAN HIZKUNTZA: 26,8 %

7. KUDEAKETA PLANA

Kudeaketa-plana ekintza-plan bat da; plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko lanabesa.

19/2024 Dekretuaren 3. artikulua jasotzen du hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak, HOEI eta Plan Estrategikoez gain, Kudeaketa-planak onartu beharko dituela. Eta 20. artikuluan zehazten du kudeaketa-plan bat edo batzuk egin eta onartu dituela bi aldiz, gutxienez, plangintzaldi bakoitzean. Onarpen hori barne antolakuntzako arauak diotenari jarraituz egingo da eta onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko da.

Jarraian azaltzen da plan estrategikoaren egiturarekin bat datorren Kudeaketa-plana. Hain zuzen ere, Beasaingo Udalean Euskaren Erabilera Normalizatzeko 2024-2027 Plan Estrategikoan jasotako helburuak lortzeko ekintza zehatzak azalduko dira, bai eta ekintzon arduradunak, epeak eta segimendua egiteko epemugak ere.

7. PLAN DE GESTIÓN

El plan de gestión es un plan de acción, una herramienta para alcanzar los objetivos recogidos en el plan estratégico.

El artículo 3 del Decreto 19/2024 recoge que la planificación lingüística se hará mediante la aprobación de los Planes de Gestión por cada una de las entidades del sector público vasco, además de los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales y los Planes Estratégicos. Y en su artículo 20 especifica que ha elaborado y aprobado uno o varios planes de gestión al menos dos veces en cada periodo de planificación. Dicha aceptación se hará de acuerdo con las normas de organización interna y una vez aprobada deberá publicarse en la página web de la entidad.

A continuación, se expone el Plan de Gestión acorde con la estructura del Plan Estratégico. En concreto, en el Ayuntamiento de Beasain se expondrán las acciones concretas para conseguir los objetivos recogidos en el Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera 2024-2027, así como los responsables de estas, plazos y fechas límite de seguimiento.

1. ARDATZA EJE 1	KUDEAKETA / GESTIÓN		
	EKINTZAK / ACCIONES	URTEA / AÑO	ARDURADUNAK / RESPONSABLES
1.0.1 KUDEAKETA OROKORRA 1.0.1 GESTIÓN GENERAL	Lantaldea sei hilean bildu Plan Estrategikoaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipena egiteko. Reunión semestral del grupo de trabajo para el seguimiento del Plan Estratégico y de los criterios lingüísticos.	2025	Erabileria batzordea. Comisión de uso
	Hizkuntza-irizpideak zehaztu ondoren, dagokion Udal Organoak onartuko ditu. Una vez definidos los criterios lingüísticos, serán aprobados por el Órgano Municipal correspondiente.	2025	Arduradun politikoak. Responsables políticos
	Lantaldeak zehaztutako irizpideen jarraipena egin ondoren, euskara-arduradun politiko eta teknikoak urtero emaitzen berri eman. Tras el seguimiento de los criterios establecidos por el grupo de trabajo, el responsable político y técnico de euskera dará a conocer anualmente los resultados.	Urtero Anual	Euskara-teknikaria eta euskararen arduradun politikoak. Técnico de euskera y responsable político de euskera
1.0.2 LIDERGOA 1.0.2 LIDERAZGO	Udal korporazioa osatzean, 4 urtean behin, hizkuntza-irizpideen berri eman arduradun politikoei. Informar a los responsables políticos de los criterios lingüísticos a la hora de constituir la corporación municipal cada 4 años.	2027	Euskara teknikaria. Técnico de euskera
	Sail bakoitzeko arduradunak langile berriei hizkuntza-irizpideen berri eman. El responsable de cada departamento debe informar de los criterios lingüísticos al nuevo personal.	Urtero Anual	Sailtako arduradunak. Responsables departamentales.
	Hizkuntza-irizpideak zehaztean, langile guztiei eta zinegotziei komunikatu. Comunicar a todo el personal y concejales la definición de los criterios lingüísticos.	2025	Sailtako arduradunak Responsables departamentales.
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA 1.0. 5 COMUNICACIÓN DE LA ESTRATEGIA DE PROMOCIÓN DEL USO DEL EUSKERA	Sailka hizkuntza-irizpideen berriazko lanketa egin. Elaborar de forma específica los criterios lingüísticos por departamentos.	2025	Euskara-teknikaria eta Sailtako arduradunak. Técnico de euskera y responsables departamentales
	Herrian zehar dauden panel digitaletan euskararen erabileraren inguruko datuak, kanpainak... argitaratu. Publicar datos, campañas... sobre el uso del euskera en los paneles digitales que existen en el municipio.	Urtero Anual	Komunikazio-arduraduna eta euskara teknikaria Responsable de comunicación y técnico de euskera
	Jarraipena egiteko egingarriak diren gutxienekoak adostu. Acordar mínimos factibles para el seguimiento.	2026	Kontratu-arduradunak eta euskara-teknikaria. Responsables de contratos y técnico de euskera
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK 1.0.6 CLÁUSULAS LINGÜÍSTICAS	Pleguetako klausulen azterketa egin. Hacer un análisis de las cláusulas de los pliegos.	2025	Kontratu-arduradunak eta euskara-teknikaria. Responsables de contratos y técnico de euskera.

2. ARDATZA EJE 2	ERABILERA / USO			
	EKINTZAK / ACCIONES	URTEA / AÑO	ARDURADUNAK / RESPONSABLES	
2.1.1 IRUDIA 2.1.1 IMAGEN	Azpiktratatutako enpresei hizkuntza-irizpideen berri eman eta Obretako aldi baterako hizkuntza-paisaia euskara jarri. <i>Informar a las empresas subcontratadas sobre los criterios lingüísticos y poner el euskera como paisaje lingüístico temporal de las obras.</i>	Urtero Anual	Arduradun politikoa, euskara-teknikaria eta sailetako arduradunak. <i>Responsable político, técnico de euskera y responsables departamentales.</i>	
	Lehen hitza eta bigarrena euskaraz egin; eskaintza aktiboa sustatu. <i>Primera y segunda palabra en euskera; fomentar el uso activo.</i>	Urtero Anual	Arduradun politikoa, euskara-teknikaria eta sailetako arduradunak. <i>Responsable político, técnico de euskera y responsables departamentales.</i>	
2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK 2.1.2 RELACIONES CON LA CIUDADANÍA	Obretako aldi baterako hizkuntza-paisaia euskaraz jarri. <i>oner en euskera el paisaje lingüístico temporal de las obras.</i>	Urtero Anual	Arduradun politikoa, euskara-teknikaria eta sailetako arduradunak. <i>Responsable político, técnico de euskera y responsables departamentales.</i>	
	Udal Zerbitzuetako erabiltzaileei harremanetarako hizkuntza galdetu. <i>Consultar el idioma de contacto a los usuarios de los Servicios Municipales.</i>	Urtero Anual	Saileko arduraduna. <i>Responsable departamental.</i>	
2.2.1 BARNE-HARREMANAK 2.2.1 RELACIONES INTERNAS	Herritarrak artatzeko guneetan eta e-mailetan euskaraz egiteko gonbidapena egin. <i>Invitar a que se use el euskera en los puntos de atención a la ciudadanía y en los correos electrónicos.</i>	2025	Euskara-teknikaria. <i>Técnico de euskera.</i>	
	Kafe-makinaren ondoan, office-an.. eta eremu informaletan euskaraz aritzeko gonbidapena egin. <i>Animar a la gente a hablar euskera en la cafetería, en la oficina... y en zonas informales.</i>	2025	Euskara-teknikaria. <i>Técnico de euskera.</i>	
2.2.2 KANPO- HARREMANAK 2.2.2 RELACIONES EXTERNAS	E-mailetan euskaraz egiteko mezua txertatu. <i>Insertar un mensaje en euskera en los correos electrónicos.</i>	2025	Euskara-teknikaria. <i>Técnico de euskera.</i>	
	Kontratutako enpresek eta hornitzaileekin udalarekin harremana euskaraz izateko lanketa egin. <i>Trabajar para que las empresas contratadas y proveedores se relacionen con el ayuntamiento en euskera.</i>	2025	Euskara teknikaria eta sailetako arduradunak. <i>Técnico de euskera y responsables departamentales.</i>	
2.2.3 PRESTAKUNTZA 2.2.3 FORMACIÓN	Prestakuntza-plana osatu eta prestakuntza eskaintzen duten enpresei ikastaroa euskaraz egiteko eskatu; baita IVAP-i ere. <i>Completar el plan de formación y solicitar a las empresas que impartan formación que lo hagan en euskera, así como al IVAP.</i>	Urtero Anual	Saileko arduraduna. <i>Responsable departamental.</i>	
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK 2.2.4 RECURSOS INFORMÁTICOS	Sistema eragilea eta office-a euskaraz instalatu langile guztiei. <i>Instalar el sistema operativo y el office en euskera a todo el personal.</i>	Urtero Anual	Informatikaria. <i>Informático.</i>	
	Laneko telefonoak euskaraz jarri; horretarako langile guztiei mezua bidali. <i>Poner los teléfonos de trabajo en euskera, enviando un mensaje a todos los trabajadores.</i>	2025	Saileko arduraduna. <i>Responsable departamental.</i>	
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA 2.2.5 LENGUA DE CREACIÓN	Euskara hutsez egingo ditugun dokumentuak zein izango diren adostu. <i>Acordar cuáles serán los documentos que se elaborarán íntegramente en euskera.</i>	2025	Euskara teknikaria eta sailetako arduradunak. <i>Técnico de euskera y responsables departamentales.</i>	

8. PLANA GARATZEKO EGITURA

Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana garatzeko egitura zehaztea ezinbestekoa da.

Euskara Zerbitzuari dagokio egituren lidergoa, dinamizazioa, jarraipena eta sustapena antolatzea, eta, era berean, egitura hauek arduradun politiko eta teknikoen babesa izatea ezinbestekoa da planak arrakasta izan dezan.

Erabilera Batzordean planaren garapenerako eta jarraipenerako zer-nolako egitura osatu beharko litzatekeen hausnartu genuen. Honako hauek izango dira, 2024-2027 epealdirako, Beasaingo Udaleko egiturak:

8. ESTRUCTURA DE DESARROLLO DEL PLAN

Es imprescindible definir la estructura para el desarrollo del Plan Estratégico y del Plan de Gestión.

Al Servicio de Euskera le corresponde organizar el liderazgo, dinamización, seguimiento y promoción de las estructuras, así como que estas cuenten con el apoyo de los responsables políticos y técnicos necesarios para que el plan sea un éxito.

En la Comisión de Uso se reflexionó sobre la estructura que debería conformarse para el desarrollo y seguimiento del Plan. Las estructuras del Ayuntamiento de Beasain para el periodo 2024-2027 serán las siguientes:

TALDE ERAGILEA GRUPO MOTOR

PARTAIDEAK / PARTICIPANTES



- Euskara-teknikaria
- Euskararen arduradun politikoa (Alkatea)
- Técnico de euskera
- Responsable político de euskera (Alcalde)

EGINKIZUNAK / FUNCIONES

- Kudeaketa Planaren garapena bermatu eta segimendua egin.
- Kudeaketa Planari lotutako eginkizunak koordinatu, ardurak banatu eta ekintzak gauzatu.
- Garantizar el desarrollo y seguimiento del Plan de Gestión.
- Coordinar las funciones, corresponsabilizar y ejecutar las acciones relacionadas con el Plan de Gestión.

ZUZENDARITZA TALDEA ERABILERA BATZORDEA? ¿EQUIPO DIRECTIVO/COMISIÓN DE USO?

PARTAIDEAK / PARTICIPANTES



- Sailetako arduradun politikoak
- Sailetako arduradun teknikoak
- Euskara-teknikaria, Udaltzainburua, Gizarte Zerbitzueta-ko arduraduna eta Idazkaria
- Responsables políticos departamentales
- Responsables técnicos departamentales
- Técnico/a de Euskera, Jefe/a de Policía Local, Responsable de Servicios Sociales y Secretario/a

EGINKIZUNAK / FUNCIONES

- Plan Estrategikoak jasotzen dituen helburuen betetze-mailaren jarraipena egin.
- Kudeaketa Planean jasotako ekintzak gauzatzen lagundu, berriak proposatu eta koordinatu.
- Sailetako langileei Planaren eta hizkuntza-irizpideen nondik norakoak komunikatu; transmisioa lana egin.
- Seguimiento del grado de cumplimiento de los objetivos recogidos en el Plan Estratégico.
- Colaborar, proponer y coordinar la ejecución de las acciones contempladas en el Plan de Gestión.
- Comunicar al personal de los Departamentos el contenido del Plan y los criterios lingüísticos; hacer una labor de transmisión.

9. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO-SISTEMA

19/2024 Dekretuaren arabera, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du, planifikazioan horretarako ezarriko dituen bitartekoen bidez.

Bestalde, Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dena.

Beraz, oso garrantzitsua da Planaren etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema bat zehaztea. Hala, Beasaingo Udalak kudeaketa-planean jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du, planaren Excel dokumentuan bertan. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu urtez urte.

Ekintzen betetze-maila modu sinplean jasoko da urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz. Horrez gain, urte bakoitzean betetze-maila (egoera) erregistratzeaz gain ekintza bakoitzarekin lotuta zer egin den ere erregistratu ahal izango dugu, betetze-mailaren ondoan oharrak jasoz.

Jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, urteroko Kudeaketa Planaz gain, honako tresna hauek baliatuko ditugu:

- HOEI
- Plan Estrategikoko adierazleak

9. SISTEMA DE SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN

Según el Decreto 19/2024, cada entidad del sector público vasco llevará a cabo un seguimiento sistemático de los indicadores utilizados en su Plan Estratégico, a través de los instrumentos de planificación que establezca a tal efecto.

Por otra parte, en al menos dos momentos del periodo de planificación, a mediados y finales de este, las entidades harán una evaluación interna cuantitativa y cualitativa que deberá publicarse en la página web de la entidad.

Por tanto, es muy importante definir un sistema de seguimiento y evaluación continua del Plan. Así, el Ayuntamiento de Beasain efectuará un seguimiento continuado de las medidas recogidas en el plan de gestión, en el propio documento Excel ¹ del plan. A través de este seguimiento conoceremos año tras año el grado de cumplimiento de las acciones previstas.

El grado de ejecución de las acciones se recogerá anualmente de forma simple, registrando si las acciones se han ejecutado en su totalidad, se han ejecutado a medias o han quedado pendientes de ejecución. Además de registrar el grado de cumplimiento (estado) de cada año, también podremos registrar lo que se ha hecho en relación con cada acción, añadiendo notas al lado del grado de cumplimiento.

Para su seguimiento y evaluación, además del Plan de Gestión anual, utilizaremos las siguientes herramientas:

- Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales
- Indicadores del Plan Estratégico

¹ Véase el documento: KEMEN_EP eta KP_2024-2027_Beasaingo Udala.xlsx

KUDEAKETA / GESTIÓN					
	HELBURU ESTRATEGIKOAK OBJETIVOS ESTRATÉGICOS	EKINTZAK ACCIONES	URTEA AÑO	ARDURADUNAK RESPONSABLES	EGOERA SITUACIÓN
1. ARDATZA EJE 1	1.0.1 EUSKARA- REN KUDEAKETA OROKORRA 1.0.1 GESTION GENERAL DEL EUSKERA	Hizkuntza-irizpideak ondo zehaztea, komunikatzea eta jarraipena egitea, horretarako lanerako egiturak antolatuz.	Lantalde bat sortu hitzkuntza-irizpideak zehazteko, langile guztiei komunikatzeko eta irizpideen jarraipena egiteko. <i>Crear un grupo de trabajo para definir criterios de concertación, comunicación a todo el personal y seguimiento de los criterios.</i>	2025	Euskara teknikaria. <i>Técnico de euskera</i>
		<i>Definir, comunicar y hacer el seguimiento de los criterios lingüísticos, organizando estructuras de trabajo.</i>	Hizkuntza-irizpideak zehaztu ondoren, dagokion Udal Organoak onartuko ditu. <i>Una vez definidos los criterios lingüísticos, serán aprobados por el Órgano Municipal correspondiente.</i>	2025	Arduradun politikoak. <i>Responsables políticos</i>
		Lantaldea sei hilean Bildu Erabilera Planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipena egiteko. <i>Reunión semestral del grupo de trabajo para el seguimiento del Plan de Uso y los criterios lingüísticos.</i>	Urtero <i>Anual</i>	Lantaldea <i>Grupo de trabajo</i>	
	1.0.2 LIDERGOA 1.0.2 LIDERAZGO	Lidergo politikoa indartzea, teknikarien asistentziarekin. Udal-korporazioa osatzen denean eta politikariei harrera egiten zaienean irizpideak adieraztea. <i>Reforzar el liderazgo político con la asistencia del personal técnico. Expresar los criterios municipales cuando se constituye la corporación municipal y se recibe a los políticos.</i>	Lantaldeak zehaztutako irizpideen jarraipena egin ondoren, euskara-arduradun politiko eta teknikoak urtean behin emaitzen berri eman. <i>Tras el seguimiento de los criterios establecidos por el grupo de trabajo, el responsable político y técnico de euskera informará anualmente de los resultados.</i>	Urtero <i>Anual</i>	Euskara-arduradun tekniko eta politikoa <i>Responsable político y técnico de euskera</i>
			Udal korporazioa osatzean, 4 urtean behin, hizkuntza-irizpideen berri eman arduradun politikoei. <i>Informar a los responsables políticos de los criterios lingüísticos a la hora de constituir la corporación municipal cada 4 años.</i>	2027	Idazkaria <i>Secretario/a</i>
1.0.3 LANGILEAK 1.0.3 PLANTILLA	Hizkuntza-irizpideak langile guztiei komunikatzea, langile berriek bereziki, eta atzerapausoak ez emateko neurriak hartzea. <i>Comunicar los criterios lingüísticos a toda la plantilla y adoptar medidas para evitar retrocesos, especialmente a los nuevos trabajadores.</i>	Sail bakoitzeko arduradunak langile berriei hizkuntza-irizpideen berri eman. <i>Informar de los criterios lingüísticos al personal nuevo por parte del responsable de cada departamento.</i>	Urtero <i>Anual</i>	Saileko-arduradunak <i>Responsables departamentales</i>	
		Hizkuntza-irizpideak zehaztean, langile guztiei eta zinegotziei komunikatu. <i>Comunicar a todo el personal y concejales la definición de los criterios lingüísticos.</i>	2025	Idazkaria eta saileko-arduradunak <i>Secretario/a y responsables del departamento</i>	
		Zenbait sailetan hizkuntza-irizpideen berariazko lanketa egin (udaltzainekin, esaterako). <i>Elaborar de forma específica los criterios lingüísticos en algunos departamentos (por ejemplo, con policías locales).</i>	2025	Euskara-teknikaria eta arduradun politikoak <i>Técnico de euskera y responsable político</i>	
BIDEAN EN MARCHA EGIN GABE PENDIENTE BERTAN BEHERA SUSPENDIDO ATZERATUTA APLAZADO					

10. PLANAREN KOMUNIKAZIOA


Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan. Prozesuko partaideen iritzia galdetegi bidez jaso dira eta Talde Eragilean zein Erabilera Batzordean landutako informazioarekin eta ekarpenekin osatu da Plan Estrategikoa. Prozesuan zehar lankide guztiek izan dute bere ekarpena eta iritzia emateko aukera eta, prozesuaren emaitza ere partekatzea ezinbestekoa da.


Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana guztiontzako plana da eta guztiok dinamikaren parte sentitzeko komunikazio eraginkorrari eutsi behar zaio. Planaren garapenean ere, Beasaingo Udalean behar besteko garrantzia emango zaio komunikazioari, eta, aldiro, bideratzen diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzeko moduak aztertuko dira.

10. COMUNICACIÓN DEL PLAN

La comunicación es clave para que este tipo de proyectos tengan éxito. La comunicación es necesaria, entre otras cosas, antes, durante y después del proceso. Se han recogido las opiniones de los participantes en el proceso mediante cuestionarios y se ha completado el Plan Estratégico con la información y aportaciones elaboradas tanto en el Grupo Operativo como en la Comisión de Uso. A lo largo del proceso todos los compañeros y compañeras han tenido la oportunidad de expresar su aportación y su opinión, y es imprescindible compartir el resultado del proceso.

El Plan de Normalización del Uso del Euskera es un plan para todos y todas y para que todos y todas nos sintamos parte de la dinámica hay que mantener una comunicación eficaz. Dentro del desarrollo del Plan, también se dará importancia a la comunicación en el Ayuntamiento de Beasain y se analizarán periódicamente las formas de difusión de la información sobre las acciones que se llevan a cabo.





Beasaingo Udala

Loinazko San Martin Plaza 1
20200 BEASAIN
943 02 80 50 • udala@beasain.eus
www.beasain.eus